


## AUSTRALIako nire lagunak

**ERRAMUN IRASTORZA**

**U**NEORO gogoan ditut.  
Ezagutu nituen eta oroitapen  
atseginak dakartzkite:

Australia bertakoak,  
Zelanda Berrikoak, Tasmania, Japoi, Korea,  
India, Singapur, Estatu Batuak, Mexiko,  
Arjentina, Jermania, Irlanda, Ingalaterra,  
Suiza, Italia, Frantzia, Austria, Noruega...  
bazter guztietakoak; hango bat, hemengo  
beste bat, horko bi... Eta denok elkar dena  
ulertzen; batzutan asko edo gutxi nekatu  
ondoren edo ez, batzutan hitzez bestetan  
eskuz mintzatuaz, ingelesez edo mimos,  
komunikazioa behintzat bai; bakardadeak  
bultzatu egiten, beharrak lagundu.

Aurkezpen beharrik ez, ala? Gazteak eta  
jolastiak, bihurriak, bai ama bai alaba;  
ogitarteko bat hiruron artean jan eta  
errekara poteatzera joan ginan. Ondo  
ibili, lagunok; ikusi arte.




Horma dotoreak  
aurkitu genituen,  
zorrotzak eta  
gogerrak; hatzak  
mindu genituen eta  
zenbait aldiz erori  
ondoren elkar  
ezagutu ginen.






**Arapiles eta Australia osoko eskalabiderik ezagunenetakoa: «Kachoong»; 5 edo 6m.tako tetxu ikusgarria oinak 80m.tara direlarik; izugarria eta oso erraza (6n edo). Ez zaitut inoiz ahaztuko. Eskalatzailea Lachlan Dibden australiarra.**


**Eta hemen ba ahal dakizue non nagoen? Eskuak lurretik 2m.tara; zintzilik luzatu ezker oin muturrekin lurrera iritxi, baina bai argazki polita, e! Holakoak ez omen dira kontatzen, izkutuan gorde baizik, baina zer ajola dio? Imajenak merezi du; berak bakarrik nahikoa balio du.**



**Irlandan jaio eta Zelanda Berrin bizi den Paul Johnston Australian; nonbait geratuko haiz! Aurten Frantzi aldera omen hator? Bisitatxo bat egiguk Euskadira.**



**Beno, Lachlan (lagun minak egin ginen); ikusiko gaituk. Hi hona ez ba hator, ni hara joango nauk. Ikusi arte. Agur.**



**Bai harkaitz ederra, e? Hau ere «Kachoong»en antzeko bide beldurgarri bat; erori ezker 50m. besterik ez, baina bai atsegin eskalatu ere.**

## HAN HAGO

Nekaturik aurkitzen naun. Geldi, lasai, pentsati, apal, epel, goxo, gaixo.

Hi haunat buruan. Zergatik? Non hago? Ni hemen eta hi han. Hirekin izan nindunan. Bihotzez laztandu hindudan.


Hire epeltasuna jasan ninan; orain hemen hotz; hire oroimenak bizkarrean gora zirrara zulakorrak ematen zizkidan. Tarteka burua hustu ohi naun; min, zulo, beltz, hestu; min!!

Berriro hireganatzean irrifar lasaigarri bat itzultzen zaidan ezpainetara eta hire arnasa hartu dinat niregan. Ez zaidan besterik bururatzen, hi nahi haunat, hi behar haunat; hi!!

Batzuetan negar egiten dinat; atzo negar egin ninan. Hire besoak nire aurpegian oroitu nizkinan eta sabela zulatu zaidan; hire bihotzez bizi naun eta odola zerionat; hire bularra bizkarrean eta atzetik besarkatu naun; negar egin ninan; zer egin naun?

Elkartuko gaitun, Australia.





*Nora hoa, Lachlan?  
Hortik gora ez zegok  
Honolulu!*

## RESUMEN

### **Mis amigos de Australia**

*Durante el mes de Abril de 1988 visité Australia. Una lectura anterior de cierto artículo de Stefan Glowacz fue lo que me ilusionó a visitar esta gran isla. La estancia fue maravillosa. Ahora que tengo un momento tranquilo me he puesto a recordar...*